



ARBELEN MANTENTZE LANEN ARGIBIDERAKO DOKUMENTUA

Gasteizko Udalak, mantentze lanak burutzen dituen teknikari baten telefono deiaren bidez, 2015eko azaroaren 6an OSALANI (Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeari) jakinarazi zion zenbait ikastetxetako arbel modelo zahar batzuetan amiantoaren osagai bat aurkitu izana. Zehazki, arbel digitala instalatu behar zela-eta, udaleko langile batek hauetako arbel bati mozketak egitean antzeman zen osagai hori.

Amiantoa edo asbestoa sustantzia mineral natural bat da, zuntz-silikatoa, eta zuntzeko osaera horri esker dituen ezaugarri fisikoengatik oso erabilia izan da eraikuntzako materialetan, automobilgintzarakoetan, oihalgintzako materialetan...

Arbeletan erabilitako amiantoa, amianto ez hauskorra da, eta egindako analisietan jasotako emaitzen arabera, laginek %10-15 amianto zuten, krisotilo motakoa.

Material ez hauskorra, zuntzak matrizeari gogor hertsia dituen hari deitzen zaio, eta eskuz jalki ezin den hari, horretarako erremintak erabili beharra izaten delarik.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sail honek, egoera honen berri izanik, Prebentzio Zerbitzuaren bidez eta OSALANekin koordinazioan, zera jakinarazten du:

1. Material mota hau izan lezaketen arbelak, seguruenik 1990 urtea baino lehenagoak izango dira, gutxi gorabehera.
2. Arbel hauek normaltasunez erabil daitezke irakaskuntza zereginetan, inolako arriskurik gabe, baldin eta manipulaziorik eta alteraziorik eragiten ez bazaie.

Eta, ondorioz, burutu beharreko ondorengo neurri eta jokaerak ezartzen ditu:

1. Arbel horien manipulazioa dakarren ekintza oro debekatu egingo da (gainazala lixatu nahiz leuntzea, mozketak egitea, daratuluz zulatzea...), amiantoaren zuntzak askatu baititzakete ekintzok, horrek lekuaren arriskuarekin.



2. Material mota hau izan lezaketen arbelen erregistro-inbentarioa egingo da, eta hondatuta edo manipulaturik egongo balira, dauden lekutik baztertu egingo dira berehala. Horretarako, Sail honen Prebentzio Zerbitzuarekin harremanetan jartzea eskatzen da, honako helbide elektronikoa honen bidez: prebentzioneerriak@euskadi.eus, zuen ikastetxeetan egon litezkeen arbel hondatu edo manipulaturik berri emateko.
3. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak arbelak berritzeko *renove* plan bat ipiniko du martxan, material hori izan lezaketen arbelak lehenetsiko dituena. Horrela, era progresiboan arbelik zaharrenak aldatzeari ekingo zaio, ondorengo egunetan jakinaraziko denez.
4. Amianto-zuntza duten arbelak manipulatu dituzten langileak material horren eraginpean egon izana egiaztatzen den kasuetan, beharrezko izapideak burutuko dira langile horiei Lan egin Ondoko Zaintza bermatzeko.